



# HERRI KIROLA NAGUSITUKO DA GAUR ETA BIHAR

Eskualdeko aizkolariek hiru txapelketa jokatu dituzte; Leitzan txinga-eroate txapelketa ikusteko aukera egongo da 2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2010-09-04

VIII. URTEA 2.065. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



I. GARCIA



Urdelar txerriaren jaitsierarekin hasi ziren jaiak Elduainen atzo. ENERITZ MAIZ

## Eskualdeko hiru herri eta auzo batean festa lehertu da

**JAIK** Alkizan, Elduainen, Lizartzan eta Izaskunen egitarau oparoak osatu dituzte 4-5

**ENEKO LASA** ARRANTZALEA

«Bost edo sei urterekin hasi nintzen; ordudanik astero-astero egiten dut arrantzan»

**ALEGIA** Munduko Txapelketan hirugarren postua lortu du taldeka; hamar urte daramatza egunero-egunero etxe ondoko errekarri begira 7

**berria bekak**  
2010

**NORENTZAT:**

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**.

**Ezaugarriak:**

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan

**Ezaugarriak:**

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2010-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean dago eskuragarai

aukera ezazu, BIZI EUSKARAZ **berria**

# Eskualdeko kirolari ugari ibiliko dira txapelaren bila

**Herri kirolak** » Gaur eta bihar aizkoran eta txingeroaten txapelketa ugari jokatu dira Euskal Herrian barrena.

## ASIER IMAZ

Herri kirola maite duenak gozamenaz beteriko asteburua dauka aurretik. Arraunlariekin asetzen ez denak aizkolariekin eta txingeroaleekin esango du bapto!

Nola ez, gure ordezkariak han eta hemen egongo dira; puntaren puntan, txapelaren lehian.

Gaur eta bihar, aizkolariek hiru txapelketa jokatu dituzte. Txingeroaleak berriz, Leitzan elkartuko dira bihar.

## Maila Nagusiko Gipuzkoako Aizkora Txapelketa, finala

Donostiako Trinitate Plazan jokatu da Gipuzkoako Txapelketa, gaur 18:00etatik aurrera.

Bertan bost aizkolari egongo dira eta hauetatik bi eskualdekoak izango dira: Jexuxmari Mujika (Ibarra, 33 urte) eta Joseba Otaegi (Zizurkil, 27 urte). Hauekin batera honakoak lehiatuko dira: Iñaki Azurmendi (Arriaran, 38 urte), Joxemari Olasagasti (Igeldo, 52 urte) eta Luis Txapartegi (Aizarna, 40 urte).

Aizkolari bakoitzak hamarna pago-enbor ebaki beharko ditu: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oimbiko.

Bost aizkolarietatik, Olasagastik jantzi ditu txapel gehien, baina az-

ken bi txapelketak Azurmendik irabazi ditu, eta beasaindarrak hiru txapel ditu irabaziak guztira.



Joseba Otaegi. HITZA

## III. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketa, finala

Orozkoko (Bizkaia) plazan jokatu da III. Mailako finala, gaur 12:30ean.

Bertan sei aizkolari egongo dira eta hauetatik bi eskualdekoak izango dira: Unai Otaño (Ibarra, 33 urte) eta Asier Pellejero (Areso, 29 urte). Hauekin batera ondorengoak lehiatuko dira: Juanjoxe Erdozia (Etxarri-Aranatz, 38 urte), Arkaitz Jauregi (Ilarduia, Araba), Julen Kañameres (Berriozar, 20 urte) eta Xabier Zaldua (Zumarraga, 32 urte).

Finalaren aurretik hiru kanporaketak jokatu dira. 29 aizkolari aur-

keztu ziren hasieran eta gaur sei onenek jokatu dute finala.

Aizkolari bakoitzak bost pago-enbor ebaki beharko ditu: hiru kanaerdiko eta bi 60 ontzako.

Asier Pellejero III. Mailan jokatzen duen bigarren finala izango da gaurkoa. Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako finalean aritu zen joan zen abuztuaren 29an, eta hirugarren sailkatu zen; 45 ontzako bi enbor eta kanaerdiko bi 9 minutu eta 32 segundoan ebakita. Orain dela bi urteko III. Mailako Euskal Herriko Txapelketako finala jokatu zuen eta 6. sailkatu zen.

Unai Otaño berriz, eskarmentu handiko aizkolaria da. 2005. urtean II. Mailako Euskal Herriko txapelketako finala jokatu zuen eta seigarren sailkatu zen. 2006an, II. Mailako Euskal Herriko txapela jantzi zuen eta Maila Nagusirako jautzia egin zuen. Hurrengo urtean (2007), gainera, Maila Nagusiko txapeladunordea izan zen, baina urte horretan zigorra ezarri zitzaion eta aurten berrekin dio txapelketa ofizialetan parte hartzeari.

## Euskal Herriko Gazte Mailako Aizkora Txapelketa

Taloaren eguna ospatuko dute bihar Leitzan. Egitarauaren baitan Gazte Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketa sartu dute. 12:00etan lau aizkolari irtingo dira herriko plazara. Hauetatik bakarra izango da eskualdekoa, hau da, Eneko Saralegi (Leitza).

Gaizka Lopez, Eloy Corchero eta Eneko Otañoren aurka lehiatuko da leitzaarra. Aizkolariek sei pago-enbor ebaki beharko dituzte: lau 45 ontzako eta bi kanaerdiko.

## Nafarroako Gizonezkoen Txingeroate Txapelketa

Taloaren egunaren baitan jokatu da Txingeroate Txapelketa ere. Bertan hiru txingeroale elkartuko dira eta hauetatik bat leitzaarra izango da, Miguel Angel Sukunza hain zuzen ere. Beste biak Imanol Martin (Berriozar) eta Simon Tomas Callaghan (Metauten) izango dira. Kirolariek 50 kiloko txingekin ahalik eta plaza gehien egin beharko dituzte. Plaza bakoitzak 28 metro ditu.



Unai Otaño. HITZA



Miguel Angel Sukunza. HITZA

## » HERRI KIROLAK

### Txapelketak

#### ■ Maila Nagusiko Gipuzkoako Aizkora Txapelketaren finala.

Gaur, hilak 4, Donostiako Trinitate Plazan 18:00etatik aurrera.

#### ■ III. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketaren finala.

Gaur, hilak 4, Orozkoko plazan 12:30etik aurrera.

#### ■ Euskal Herriko Gazte Mailako Aizkora Txapelketa.

Bihar, hilak 5, Leitzako plazan 12:00etatik aurrera.

#### ■ Nafarroako Gizonezkoen Txingeroate Txapelketa.

Bihar, hilak 5, Leitzako plazan 12:00etatik aurrera.

## Villabonako Aizkardiren mendi irteera

### ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendi Elkarteak irteera antolatuta du Aigüestortes Parkera (Herrialde Katalanak), hilaren 18 eta 19rako. Izena eman nahi due-

nak edo informazio gehiago behar izan ezkerre, ondorengo telefonora deitu behar da: 649 71 71 82ra. Mendi Elkartearen ere horretarako aukera egongo da.



Colomeraseko lakua eta atxepetxean egoteko aukera izango da. HITZA



AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

# Kalitatezkoa

**EDARIAK**



**ELIKAGAIAK**



**JANTZIAK**



**DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...**



**ESKULANGINTZA**



**400**

TELEFONO ERREKORDA



SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko **PLAZA**.com



## Laburrak

### Arroilen jaitsiera Oargi mendia taldearekin

**MENDIA** ● Hilaren 10, 11 eta 12an Iparraldera arroilak jaistera joateko aukera dago Oargi mendia taldearekin. Hilaren 10ean, ostiralean, aterako dira Tolosatik, eta Logibar-eko aterpean lo egingo dute. Larunbatean, Phista-ko arroila jaitsi eta aterpetxera bueltatuko dira lo egitera, eta igandean, Ourdaibiko arroila jaitsi eta Tolosara bueltatuko dira. Irteera honetan parte hartu nahi dutenek [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzi edota 688 69 86 42 zenbakira deitu beharko dute.

### Tolosako egutegirako lehiaketan izen-ematea

**GIZARTEA** ● Tolargik eta Tolosagasa antolatutako 2011 urteko Tolosako egutegirako argazki lehiaketa erretratuei buruzkoa da. Bertan parte hartu nahi dutenek oinarriak <http://tolosagasa.blogspot.com> helbidean ikus ditzakete. Erakusketan jasotzen dituzten 40 argazkirik onenak bilduko dituzte eta ondoren, bisitariak argazkirik onena bozkatzeko aukera izango dute.

### Kubako haurren margolanak Lanbroan

**KULTURA** ● Kubako haurren margolanak daude ikusgai egunotan Tolosako Lanbroa tabernan, Cuba y palante elkarteak antolatutak. Iraila osoan zehar egongo dira bertan.

### Gaztetxoek atletismoan aritzeko aukera

**KIROLA** ● Tolosa CFren atletismo eskolan hasi dira ikasturte berriarekin. Infantilek astelehen, asteazken eta ostiralean 17:30etik 19:00etara joan behar dute; alebirek astelehen eta asteazkenetan 17:30etik 18:30era; benjaminak eta pre-benjaminak, berriz, ostiralean 17:30etik 18:30era. Nahi duen ororentzat irekia da.



## Giro polita sahararren agur festan

**GIZARTEA** ● Uda eskualdean igarotzen duten haur sahararrei agur esateko festa berezia egin zuten atzo Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatuta. Zerkausian izan ziren ekitaldiak arratsaldetik hasita. Umeek nahi adina jolas egiteko aukera izan zuten, eta ekitaldi politiko eta kalejiraren ostean saharar afarian bildu ziren gauean 200 lagun inguru. Saharar ohiko jakiak dastatu zituzten, eta festak gauerdia arte jarraitu zuen Estrella Polisaria saharar taldearen zuzeneko emanaldiarekin. L.TERRADILLOS

# Berdintasunaren aldeko emanaldi berezia aurtengo Gau Giro ixteko

**Kultura** » Eutsi Legazpiko neska taldea eta Box.a Tolosako artistez osaturiko taldea ariko dira, 22:30etik aurrera, Plaza Berrian.



Eutsi taldekoak *Beldur Barik* abestiaren bideoklippean. HITZA

baiztuten. *Beldur Barik* da beraien abesti bakarra, eta abestuko dituzten gainerakoak abesti ezagunen beretsioak dira.

Josebe Iturrioz Tolosako Udaleko berdintasun teknikariak azaldu bezala, «musika emanaldi soil batetik haratago joan nahi dugaurko saioak; berdintasunaren aldeko ekitaldi bat izango da». Hala, Eutsirekin batera, Box.a Tolosako artistez osaturiko taldea ere ariko da, eszenatokia dekoratuz, eta Matraca taldekoek emakumeek eginitako poesiak irakurriko dituzte.

Iturriozek dioenez, bi helburu ditu gaurko saioak: «Batetik, gazteak berdintasunaren inguruan sentsibilizatu nahi ditugu, eta bestetik, elkartrukea burutu nahi izan dugu Urola-Garaia eskualdearekin, euren batera jakbuntza eskola ari baikara garatzen, horregatik ekarri nahi izan dugu hango talde bat, hemengo talde batekin batera elkarlanean aritzeko».

### IÑIGO TERRADILLOS

Gaur gaueko emanaldiarekin bukatuko da aurtengo Gau Giro egitaraua. Hain zuzen ere, Eutsi Legazpiko neska taldeak eta Box.a Tolosako artista taldeak elkarlanean burutuko duten emanaldi berezia izango da Plaza Berriko eszenatoki gainean ikusgai izango dena, 22:30etik aurrera.

Eutsi taldea Legazpiko 17 eta 18 urte bitarteko bost neskek osatzen dute. Matraca talde feministaren barruan dago, eta ia azaroaren 25eko kanpaina hartu zuten parte. Euren partaidetza oinarritzkoa izan zen, kanpainaren abestia izango zena, *Beldur Barik*, sortu

### » DATUAK

■ **Zer.** Legazpiko Eutsi neska taldea eta Tolosako Box.a artista taldearen emanaldia.  
■ **Non eta noiz.** Plaza Berrian, gaur, 22:30etik aurrera.

■ **Ekimena.** Kontzertu batetik haratago doan emanaldia izango da. Berdintasunaren inguruan gazteak sentsibilizatzea da jaialdiaren helburu nagusia.

## Hilberria

### MIGUEL RUBIO BELOKI



Zenbakiak zintzilik kurpildun aulkian lagunarte itzela modu irekian hire izatea nola azaldu hitz biaz larrosa hau hiretzat bertso aitazakian.

Zaldibiko Gaintxaiko lehengusuk

ZALDIBIA  
2010eko  
irailaren 4a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
[tolosaldean@tolosaldecohitzan.info](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitzan.info) / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com) Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



# Alkizan, Elduainen, Izaskun auzoan eta Lizartzan festak hasi dira

**Jaiak** » Atzo eman zieten hasiera jaiiei. Haurrak izan ziren protagonista eta festei hasiera ona emateko afariak eta musika izan zituzten.

**EBERAKIZIOA**

Alkiza, Elduain, Izaskun auzoan eta Lizartza festan murgilduta dabilte. Atzo hasi zituzten jaiak, Izaskun auzoan, igande goizeko diñarekin bukatzen badira ere, besteek egun gehiago izango dituzte partaidetarako. Elduainen, asteazkena jai eguna izango du. Lizartzan, asteartea eta asteazkena izango dituzte eta Alkizan, asteazkenaz gain, hurrengo ostiralean eta larunbatean ere festa izango da nagusi.

Alkizarrak izan ziren lehenak festei hasiera ematen eta haur jokak izan zituzten. Ondoren, herri afaria eta Elustondo anai-arrebekin erromeria izan zituzten.



Opariak jaso eta jolasekin hasteko zain egon ziren haurrak. Gogotsu zuden. L. MAZ

Jarraian, Elduaingo suziriak egin zuen ezartanda eta udaltxeko lehiotik Urdelar txerria jaitzi zen. Herriko txiki-ek, puzgarriak izan zituzten. Hantzen herri afaria eta girotxeko Dj Bill izan zuten. Gauerdian, Vende eta Oatillo taldeen kontzertua izan zen.

Izaskun auzoan ere suziria jaurti zuten eta jarraian txokolata bonatu zuten bertaratuakoen artean. Triki potosa, afaria, danborrada eta Lakotalka izan ziren.

Lizartzarak kalejiraekin hasi zituzten jaiak eta besteek bezala, herri afaria egin zuten. Gauerdian txupinazoak jaurti eta txar angarriak danborrada egin zuten. Ondoren kontzertuak izan zituzten.

**Irudikatu mundua BERRIarekin**

**Gozatu berria**

Egin harpidedun eta jaso **ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.**

**Espegiak:**

- 1000 argazki, 9 megapixela
- 1000 argazki, 12 megapixela
- 1000 argazki, 16 megapixela, software erregulazio automatikoa
- 2000 argazki, 10 megapixela, 100 argazki irudi erregulazio automatikoa
- 1000 argazki, 12 megapixela, 100 argazki irudi erregulazio automatikoa
- 1000 argazki, 16 megapixela, 100 argazki irudi erregulazio automatikoa

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

Urtarraren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean, Elektran eskutik.**

**elektra**  
www.elektra.com

Harremanetarako: 943 50 43 45 • harpidetza@berria.net




Futbolaren ibil ostenen, jolas-tarako prestatu ziren. L. MAZ

**BEHERAPENAK !**

**% 50 arte!!!**

**azken egunak**

**Ilabor** Berria 23 - Villabona  
Tel.: 943 111 840



Elduainen, udaltxeko lehiotik suziria jaurti ostean, haurrak Urdelar txerria jaitzeko zain egon ziren. Jarraian guztiak puzgarrietara gerturatu ziren. L. MAZ



Kaskoa jantzi eta abiduraz goazteko aukera ere izan zuten Elduainen. L. MAZ



Izaskun auzoan, txokolata bikotxoekin banatu zuten. GARCIA

**EGITARAUA**

**ALKIZA Gaur**

- **16:30.** Pitxoi txaketa, Ermiope eliza elizateko antokututa.
- **17:00.** Futbol partida jokatuko dute; ezkontzak ezkongabeen aurka.
- **23:00.** Herri kirol saioa, aikolari eta harri jaso zaleekin.
- **Ondoren.** Kontzertuak: Zgabe2, Margox eta Kraussk taldeekin.

**ELDUAIN Gaur**

- **11:00.** Zalki gainean edota gurdian ibilaldiak herrian zehar.
- **17:00.** Toka saioa herriko plazan, sari eta gusti.
- **18:00.** Patata tortilla dastaketa egingo dute herriko plazan, sagardo eta ardoaz lagundurik izango da.
- **19:30.** Kale antzerkia, Trapu Zaharra taldearen eskutik; Korpiag renove antziazkera.
- **Ondoren.** Dj Bull Urdelar Biltokiak.
- **00:00.** Abiba diskojaila herriko plazan. (Autobus zerbitzua egongo da, Tolosa eta Leitza aldera).

**LIZARTZA Gaur**

- **10:00.** Goizdeia, Lizardi Txistu-ari taldearekin.
- **12:30.** III. Patata Tortilla lehiaketak.
- **13:30.** Toka Txapelketa.
- **14:30.** Herri Basaria trikitilariak alaiturik.
- **17:00.** Ume jolasak.
- **19:00.** Sagardo dastaketa.
- **20:00.** Trikiti varanga bertso potosa.
- **23:30.** Su artifizialak jaurtiko dituzte.
- **Ondoren.** Kontzertuak: EZI eta Mirren, Agur eta Gorka taldeekin.

**IZASKUN AUZOAZ Gaur**

- **10:00.** Haurrentzako gosaria eta ondoren jolasak.
- **11:00.** Toka txapelketa.
- **12:30.** Batel desafioa Ori ibaian: Bonberenea vs Izaskun.
- **14:00.** Auzo bazkaria txar angarriekin. Ondoren, Izaskun auzoko Mus Txapelketa 2010, Toka Txapelketa (emakumezkoak).
- **19:00.** Sagardo dastaketa pin-txoekin.

**IZASKUN AUZOAN BURUHANDIAK IBILI ZIREN.** GARCIA

**Urola Garnis.com**  
943 73 04 26 - 943 25 06 81

# Euskal kantagintzaren uhin berria aurkeztuko dute gaur

**Ibarra** » Kantuzaleen elkarteak antolatuta, Ordiziako Euskal jaiaren baitan izango da saioa; bi ibartar bertan izango dira.



Egigurenek Sarasolarekin batera, emanaldian parte hartuko du. HITZA

## ERREDAKZIOA

Gipuzkoako kantari gazteen ahots eta doinuek hartuko dute gaur Ordizia. Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuta Gipuzkoako euskal kantu txapelketaren finalean aritu ziren kantariak entzuteko aukera izango da. Izan ere, Euskal kantagintzaren uhin berria izeneko ikuskizunerako elkartu dituzte.

Ikuskizunean bi ibartarrek hartuko dute parte, Garazi Egiguren eta Oihane Sarasolak. Txapelketan aurkeztutako kanta bana abestuko du parte-hartzaile bakoitzak, eta baita ikuskizunerako sortutako beste bat ere. 20:00etan Ordiziako plazan izango da kantua protagonista izango den emanaldia.

Zazpi bakarlarri, eta bikote eta talde bana igoko dira oholtza gainera, eta guztira 18 kanta abestuko dituzte. Garazi Egiguren (Ibarra), Lorea Intxaurrendieta (Lezo), Amy Kerkhof (Bergara), Goiatz Irazabal (Donostia), Oihane Sarasola (Ibarra), Irati Odriozola (Oiar-

tzun) eta Ioritz Iparragirre (Zarautz) dira bakarlarriak, Ane Badiola eta Irati Odriozola oiartzuarrik bikotean ariko dira, eta azkenik, Azpeitiko Arantzeta taldeak joko du. Disko bat ere aterako du elkarteak parte-hartzaile horien abes-  
tiakin.

## Laburrak

### Zabalik dira, Laskorain aurreko bi noranzkoak

**TOLOSA** » Udaltzaingoa jakitera eman duenez, gaur arratsaldetik aurrera, bi noranzkotan zeharkatu ahal izango da lurreamendi eta Iruña etorbidea lotzen dituen bide-zatia. Hau da, Laskorain ikastola aurrea. Bestalde Udaltzain zerbitzuek ohartarazi dutenez, tonaje handiko kamioiek debekatuta dute hortik igarotzea.

### Euskara ikastaroetan izena emateko epea zabalik da

**VILLABONA** » Astelehenean irekiko da euskara ikastaroetan izena emateko epea. Hilaren 24ra arte euskara ikasi nahi duen jendeak izena eman dezake Villabonako Euskara Zerbitzuan, eta talde homogeneoak sortuz gero, ikastaroak Zizurkilan edo Villabonan bertan antolatuko dira. Honela ikasleek ez dute inoraz joan beharrik izango zerbitzu hau jasotzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezakezue edo 943 693 501 telefonoa deitu goizeko 9:30etatik 14:00ak arte.

### Jesusen Bihotzakoez hasier dute ikasturtea

**VILLABONA** » Jesusen Bihotza Ikastolak Villabona eta Zizurkilgo ikasle eta gurasoei gogorarazten die, datorren astean emango zaiola hasiera 2010-2011 ikasturteari. DBHko ikasleek astelehenean 12:00etan izango dute aurkezpen ekitaldia. Lehen Hezkuntzakoek berriz, egun bat beranduago, asteartean 09:00etan. Azkenik, Haur Hezkuntzakoak ere asteartean. Baina, 0-2 urtekoak egokitzen ordutegiaren arabera ekingo diote ikasturteari; 3 urtekoek, 09:15ean eta 4-5ekoek, 09:00etan.

### Oraindik musika eskolan izena emateko aukera dago

**TOLOSA** » Eduardo Mocoora Tolosako Udala Musika Eskolakoek etzi ekingo diote ikasturte berriari. Baita ere jakinarazi dutenez, oraindik plaza libreak gelditzen dira, eta izena eman daiteke. Honenbestez, matrikula egiteko interesa dutenentzat epea zabalik dago oraindik.

### Atzeritarrek euskara ikasteko saio bereziak

**ZIZURKIL** » Eskualdean bizi diren atzeritarrek euskararekin lehen-dabiziko hartu-emana izan dezaten, ikastaroak antolatu dituzte Zizurkilan. 60 orduko iraupena izango dute ikastaro hauek. Izena emateko epea etzi, hau da, astelehenean irekiko dute. Honenbestez, interesatuek Zizurkilgo Udala Bulegoetan egin dezakete, edo 943 69 24 95 telefono zenbakira deituta.

### Asteartean hasiko dira lanean Aralar institutuan

**ALEGIA** » Aralar institutukoek asteartean ekingo diote ikasturte berriari. Hala, lehendabiziko egunean 10:00etan emango diote hasiera egunari eta 12:00etan amaitu.

### Hiri antolamenduko plan nagusia ezagutzeko aukera

**IBARRA** » Iraileko asteartean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era Ibarra Hiri-antolamendurako Plan Nagusia idatzi duen taldea Kultur Etxean egongo da, hasierako onarpenaren aurreko fase moduan, interesatuek espedienteak osatzen duen dokumentazio guztia kontsulta dezaten.

### KZ guneko tutorearen bisita hilabete honetan

**BERASTEGI** » Tutorearen bisita jaso dituzte hil honetan KZ guneko erabiltzaileek. Alde batetik, datorren ostegunean joango da, 16:00etatik 20:00etara egongo da bertan. Bestetik, hilaren 23an, 16:00etatik 20:00etara.

### V. Literatur lehiaketa abian jarri du kultur taldeak

**LEITZA** » Kultur taldeak V. Literatur lehiaketa antolatu du. Hau bi sailetan banatu dute, batetik, narrazio laburra eta bestetik, ipuina eta bertso-papera. Lanak aurkezteko epea urriaren 30ean amaituko da. Narrazioek bi orritik hamarrera bitarteko luzera izan behar dute, eta bertso-papera lau bertso 16ra-koa.

### Piparraren lehiaketa gastronomikoa jokoan

**IBARRA** » Hauspoa elkarteak antolatuta Piparraren Euskal Herriko VI. Lehiaketa Gastronomikoa jokatuko da hilaren 26an. Ibarra, azoka eta piparra jaiaren baitan ospatuko da. Parte hartu nahi dutenek jada eman dezakete izena. Horretarako eta informazio gehiago jasotzeko, interesatuek 943 67 03 99ra deitu dezakete edo [ibarra.kult@euskalnet.net](mailto:ibarra.kult@euskalnet.net)-era idatzi.

### Udalak ebatzi ditu 2010eko kirol diru-laguntzak

**IBARRA** » Ibarra Udalak onartu ditu Kirol Saileko diru-laguntzak, eta honen arabera, Lau-Buru KE-k 21.500 euro jasoko ditu; Sendi Ekintzak 3.500; Uzturpe ikastolak 2.900; Belabieta gimnastika erremikoko taldeak 2.000; Tolosa Arraun Klubak eta Jesus Mari Mujikak 1.000; Ibarra soka-tirak 800; Tolosa Igeri Taldeak 650; Ibarra Racing autocross, Ibarra Racing motociclismo, Ibarra Racing eta Maskarresek 600; Igarondo urpekoek 500 eta azkenik, Euskal Fundazioak 250 euro.

www.euskalherriko  
**plaza.com**



**skünkfunk** %20

Lehen: 31,53 €  
Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 €  
Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 €  
Orain: 52,9 €

**kot** %20

Lehen: 28,48 €  
Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 €  
Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 €  
Orain: 22,78 €

20 €

20 €

20 €

**TTAK**

2 elastiko  
35 €

**E Elkarrizketa**

**ENEKO LASA** › Arrantzalea



I. GARCIA

# «Arrantzak erlaxatu egiten nau, denaz ahazten zara»

**Alegia** » Gaztea izan arren hamar urte daramatza arrantzan Eneko Lasak. Aurten ere brontzezko domina lortu du taldeka Munduko Txapelketan.

IMANOL GARCIA

Hirugarren aldia da aurtengoarekin parte hartzen duela Eneko Lasak (Alegia, 1994) Munduko Arrantza Txapelketan. Eslovakian izan da aurtengoan eta hortik ere dominarekin itzuli da alegiarrak: brontzezkoa taldeka.

**Noiz hasi zinen arrantzan?**

Nahiko goiz hasi nintzen. Bost edo sei urterekin. Nire aitaren lagun batek esan zidan ea joan nahi nuen arrantza egitera probatzeko. Joan nintzen eta gustatu zitzaidan eta ordudanik astero astero aritu naiz. **Ordudanik astero?** Bai, astebururo aritzen naiz.

**Munduko Txapelketan hirugarren parte hartzea izan duzu. Baina horretarako ere beste txapelketa batzuetan parte hartu duzu, ezta?**

Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako lau txapelketa jokatu ditut. Gipuzkoan eta Euskadin pare bat irabazi ditut eta Espainiakoan hirugarren postua lortu dut. **Eta Mundukoan hiru parte hartzetan lortu duzu dominaren bat.** 2008an Portugalen bigarren postua lortu nuen banaka eta hirugarren taldeka. Laz, Txekian, hirugarren postua lortu genuen taldeka, aurtengoan bezala.

**Nola izaten da txapelketaren jarduna?**

Arrantza banaka egiten da. Gero, egiten duzun postuaren arabera, horiek gehitu egiten dira eta taldearen puntuak ateratzen dira.

**Zenbagarren postuan gelditu zara zu?**

38. egin dut aurten. Helburua beti taldekakoa izaten da, gero banaka postu on bat lortzen baduzu hobe.

**Zenbat izaten zarete talde bakoitzean?**

Sei izaten gara. Taldeko batek bigarren postua lortu zuen banaka eta besteak ere txukun aritu ginen.

**Nola lortzen dira puntuak?**

Ahal den arrain gehienak ateratzen dituzu. 18 zentimetro baino gehiago izan behar zituzten arrainek. Amuarrainak eta timalo izenek hango arrain bat, amuarrainaren antzekoa, arrantzatuta behar

genituen. Dezente ateratzen ziren horrelakoak, nahiko handiak, eta puntuak lortzeko ondo etortzen ziren.

**Zenbat arrain atera zenituen?**

Aurreneko txandan bost atera nituen, bigarrenean hiru, hirugarrenean hamar eta laugarrenean hamaika. Azkeneko txandan nik ez nuen parte hartu, ordezkoak hartu zuen eta nire lekua.

**Zenbatak hartu zenuten guztira parte Txapelketan?**

70 inguruk parte hartu genuen. Hiru erreka zeuden, baina horietako bietan bi sektore. Beraz, guztira bost sektore zeuden eta bakoitzean taldeko bat jartzen zen.

**Denbora izaten duzue turismo pixka bat egiteko?**

Gutxi. Aurten pare bat egun lehenago joan ginen eta zerbait ikusi genuen. Baina bestela eguneroko goizeko bostetan jaikitzen ginen, gosalduta eta autobusa hartzen genuen. Gero bederatzietatik hamaibietara arrantza egiten genuen. Bazkaldu eta gero hiruretatik seietara berriro arrantza egitera. Gero

hotelera bueltatzen zara, nekatuta, afaldu, taldekoekin zerbait hitz egin eta ohera. Lau egun gogor izan ziren. Azkeneko egunean izan genuen aukera lagunekin ateratzeko.

**Nola prestatzen zara txapelketarako?**

Alegian entrenatzen dut eta Andoainera ere joaten naiz. Etxearen ondoan erreka daukadanez, gehiena hona etortzen naiz. Egutero ere ez, baina entrenatzen dudanean hiru-lau ordu aritzen naiz.

**«Ur gutxirekin kontuz ibili behar duzu amuarrainek zuri ez ikusteko, belauniko askotan»**

**Eta pazientzia handia beharko da, ezta?**

Gure modalitatea euli-arrantza da. Errekan mugitzen zoaz beti, ez da itsasoa bezala, kaina bota eta gel-dirik egoten zarela. Hemen errekatik mugitzen joaten zara amuarrainak bilatuz. Interesgarriagoa da, polita.

**Errekatik mugitzerakoan kontuz ibili beharko zara arrainak ez uxatzeko...**

Ur askorekin ez hainbeste. Ur gutxi dagoenean kontuz ibili behar duzu amuarrainek zuri ez ikusteko, belauniko eta makurtuta ere askotan. Amuarrainek segituan ikusten zaituzte. Uretan sartzen zarenan olatuak bezalakoak egiten dituzu eta segituan sentitzen dute eta mugitzen hasten dira.

**Zerk erakartzen zaitu arrantzatik?**

Arrantzak erlaxatu egiten nau eta denaz ahaztu egiten zara. Amuarrainak noiz helduko duen, horretara bakarrik zaude eta niri horrek erlaxatu egiten nau. Kontzentrazioa eskatzen du.

**Arrantzan zortea beharrezkoa da?**

Ondo prestatuta bazoaz eta zorte pixka bat baduzu ondo etortzen zaizu. Arrantzarako tartea ona tokatzen bazaizu eta arrantzan egiten badakizu, beti gehiago ateratzen dituzu. Zortea ere zerikusit pixka bat badauka.

**Baten batek laguntzen dizu presatzen?**

Andoingo batek laguntzen dit, Jonathan Torralbok. Txikitan ikusi ninduen eta ondo egiten nuela arrantzan esan zidan eta berarekin eta aitarekin hasi nintzen joaten. Asko ikasi dut Torralborekin eta jarraitzen dut ikasten ere. Arrantzan beti gauzak ikasten zoaz.

**@ XII. Argazki Lehiaketa.** Dagoeneko ikusgai daude XII. Argazki Lehiaketan parte hartzen ari diren argazkiak webgunean. Horretarako *Irudietan* atalaera sartu behar da eta bertan XII. Argazki Lehiaketaren bilduma aurkitu. Hor izango dira orain arte parte-hartzaileek bidalitako argazkiak. Bestalde, parte hartu nahi dutenek ondorengo posta elektronikora bidali behar dute: [argazkiak@tolosaldeko-hitza.info](mailto:argazkiak@tolosaldeko-hitza.info). Arakatu, beraz, oporretan egindako argazkietan eta parte hartu lehiaketan.  
[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Iragarki laburrak**

**LANA**  
■ **Igeltseritza eta pintura.** Teiltatu eta etxe-barruen erreforma orokorra eta orokorrean igeltseritza eta pintura lanak egiten ditut. Tolo-

saldean, Leitzaldean eta Donostialdean. Interesatuek 656 41 02 80 edo 943 65 01 84 telefono zenbakietara deitu dezakete.





23°  
15°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 26°  
HOTZENA 17°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta/Leizor:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Errumaniako zelatariak

### ASTEASU

Asteasuko Albertok, hamabost egun Errumaniar pasa ditu eta bertako herri txiki batean atera zuen argazki honekin hartu du parte XII. Hitza Argazki Lehiaketan. «Errumaniako herri zoragarri batean, etxeek begiratu egiten zaituzte» dio. ALBERTO



### A Agenda

#### Deialdiak

■ **Anoeta.** IX. Gazte Eguna: 10:00etan gosaria; 11:00etan asanblada eta belaunaldi berriari ongi etorria gaztetxean; 12:00etan sagardo dastaketa; 14:00etan pella jatea; 18:00etan poteo animatua; 21:00etan afaria; 22:30ean gazte antzerkia: *Printzesa Txikia*; 23:30ean Egurra ta kitto eta Ingo al deu taldeen kontzertua; gau gutzian Txirrisklas banatuko da.

#### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Ollarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

### A Agurrak



#### Zorionak!

**Dolores Artola Artola (Istilleta-Lizartza).** Astelehenean 84 urte. Izan genezakeen ama, amona eta amaginarreba onenari. Eskertuz eta estimatuz. Zorionak eta urte askoz seme-alaba sui-errain eta biloben partetik.



#### Zorionak!

Gaur aitonen urtebetetze eguna, bihar Ikerrena eta hilaren 11n Unaiena. Zorionak eta muxu haundi bana etxeokoen partetik.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

argazki lehiaketa

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!**

**1. Saria**  
Eako Anduzte pertsonentzako...

**2. Saria**  
Getariako Gure Astelehenetan bi pertsonentzako gau bat pasatzeko...

**3. Saria**  
Gorrotxategi Gurean eskeinitako saria...

parte-hartzaile eta bost argazki HITZako materiala erabiltzeko...

le elektronikora...

**NORA BIDALI?** [argazkiak@tolosaldeko hitza.info](mailto:argazkiak@tolosaldeko hitza.info)

**HITZA** udarako argazki lehiaketa **Irailak 30 arte**

**SEGORE ETXE BERRI**

**SANTA MARINA**  
Tel.: 943 58 09 76 - Mugikorra 610 460 751